

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

466/2020, Foru Agindua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira, 2020ko azken hiruhilerako eta 2021eko lehenengorako, makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan aplikatu beharreko kuota finkoak autolikidatzeko epeak.

Otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duenak, ezartzen du Jokoaren gaineko Zergaren zerga egitatea joko jarduera jakin batzuk baimendu, antolatu edo egitea dela, bitartekoa edozein lortzen den urtean edo baimen hori eten, errebotatu edo azkentzekoan, kuota hiruhileko naturaletan hainbanatuko dela baimena ematen denetik aurrera edo hari baja eman, hura eten edo errebotatu arte.

Horrelako kasuetarako, 12. artikulua dio ausazko jokoak egiteko gai diren makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan, kuota finko bat exijituko dela makina edo aparatu bakoitzeko. Orobat, ezartzen du ezen ustiapenerako baimena lortzen den urtean edo baimen hori eten, errebotatu edo azkentzekoan, kuota hiruhileko naturaletan hainbanatuko dela baimena ematen denetik aurrera edo hari baja eman, hura eten edo errebotatu arte.

Bere aldetik, abenduaren 21eko 1330/2001 Foru Agindua, zorte, apustu eta ausazko jokoen gaineko tributua aitortu eta likidatzeko erabili beharreko 040, 042, 044 eta 046 ereduak onartzen dituenak, jolas edo ausazko makinekin egindako zorte, apustu eta ausazko jokoen gaineko tasa fiskala autolikidatzeko 044 eredu onartu zuen (jokoaren gaineko zerga, lehen aipatutako 1/2005 Foru Arauaren onarpenetik aurrera).

Foru agindu horren 3. artikuluko hirugarren apartatuak, ekainaren 17ko 584/2008 Foru Aginduaren bidez aldatuak, dio 044 ereduaren aurkezpena eta ordainketa hiru hilean behin egingo dela, martxo, ekain, irail eta abenduaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan.

Jarduera ekonomikoa mugatzeko hartu diren neurriek, zeinak foru agindu hau egiteko unean oraindik indarrean baitaude, eta, are gehiago, Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak ostalaritza eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuak erabat ixtera behartu izanak -6/2020 Dekretua, urriaren 26koa, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio neurriak hartzen baitira alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko-, komenigarri egiten dute 044 eredu aurkezteko erregela bereziak ezartzea 2020ko azken hiruhilekoari eta 2021eko lehen hiruhilekoari dagokienez.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Orden Foral 466/2020, de 30 de noviembre, por la que se modifican para el último trimestre de 2020 y el primero de 2021 los plazos de autoliquidación de las cuotas fijas aplicables en los juegos mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos.

La Norma Foral 1/2005, de 1 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que constituye el hecho imponible del Tributo sobre el Juego la autorización, organización o celebración de una relación de actividades de juego, cualquiera que sea el medio manual, técnico, telemático o interactivo a través del que se realicen, entre las que incluye los juegos desarrollados con máquinas.

Para tales casos su artículo 12 establece que los juegos mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos aptos para la realización de juegos de azar, será exigible una cuota fija por cada máquina o aparato. Así mismo, establece que en el año en que se obtenga la autorización o permiso de explotación, o en el que se produzca su suspensión, revocación o extinción, la cuota se prorrateará por trimestres naturales contados desde la autorización o hasta la baja, suspensión o revocación.

Por su parte, la Orden Foral 1330/2001 de 21 de diciembre, por la que se aprueban los modelos 040, 042, 044 y 046 de declaración-liquidación de los tributos sobre juegos de suerte, envite o azar, aprueba el modelo 044 de autoliquidación de la Tasa Fiscal sobre juegos de suerte, envite o azar mediante máquinas recreativas con premio o de azar (Tributo sobre el juego a partir de la aprobación de la Norma Foral 1/2005 antes citada).

En el apartado tres del artículo 3 de la citada orden foral, modificado por la Orden Foral 548/2008, de 17 de junio, se establece que la presentación e ingreso del modelo 044 deberá efectuarse trimestralmente en los veinticinco primeros días naturales de los meses de marzo, junio, septiembre y diciembre.

La situación provocada por las medidas de limitación de la actividad económica e incluso el cierre total de establecimientos y servicios de hostelería y restauración, provocada por el Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari, por el que se determinan medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, modificadas por el Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, que a la fecha de dictarse este orden foral están vigentes, aconsejan establecer reglas especiales de presentación del modelo 044 para los períodos correspondientes a último trimestre de 2020 y primero del 2021.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

2020ko azken hiruhilekoari eta 2021eko lehen hiruhilekoari dagokien 044 eredua 2021eko urtarrilaren eta urte horretako apirilaren lehen hogeita bost egunetan, hurrenez hurren, aurkeztu eta ordaindu beharko da.

Halaber, makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko zerga helbideratuta dagoen kasuetan, 2020ko azken hiruhilekoari eta 2021eko lehen hiruhilekoari dagozkien zenbatekoak 2021eko urtarrilaren 25ean eta apirilaren 26an kargatuko dira, hurrenez hurren, zergadunak adierazitako banku kontuan.

Azken xedapen bakarra.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko azaroaren 30a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(6404)

En su virtud

DISPONGO

Artículo único.

La presentación e ingreso del modelo 044 correspondiente al último trimestre de 2020 y al primero de 2021 deberá efectuarse en los veinticinco primeros días de los meses de enero y abril de 2021, respectivamente.

Así mismo, el cargo en la cuenta bancaria designada por el contribuyente que esté dado de alta en la domiciliación del tributo sobre el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, de los importes correspondientes al último trimestre de 2020 y primero de 2021, se efectuará en los días 25 del mes de enero y 26 del mes de abril de 2021, respectivamente.

Disposición final única.

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 30 de noviembre de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(6404)